

MOZIOA AMASA-VILLABONAKO UDALA

Otsailaren 12 goizaldean, Tolosako inauterietako Astelehenita egunean, taberna bateko isitilua disolbatzeko asmoz, Ertzaintzak Tolosako Soldadu Kalean izan zuen esku-hartze desproporzionatuaren ondorioz Amasa-Villabonako herritar bat larriki zauritua izan zen. 16 urteko gazte villabonatarra den Xuhar Pazos Cenzano foam jaurtigailu batekin tirokatua izan zen begian. Tiro honen ondorioz atzeraezinak diren kalteak eragin dizkio Ertzaintzak Xuharri. Egoera hori salatzeke asmoz herritar talde bat antolatu eta hainbat agerraldi publiko egin ziren erasoaren ondorengo egunetan.

Xuhar zauritua izan zenetik 11 egun igaro dira eta oraindik ez da azalpenik edo erantzunik jaso Ertzaintzaren partetik ezta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburu den Josu Erkoreka jaunaren partetik ere.

Hain zuzen, aipaturiko herritar taldea da Amasa-Villabonako udalean mozioa aurkeztu eta Amasa-Villabonako udalbatzaren izenean ondorengo adierazi eta salatzea eskatzen duena:

1. Amasa-Villabonako udalbatzak larriki kaltetua izan den Xuhar eta bere familiari elkartasun eta babes osoa adierazten dio.
2. Amasa-Villabonako udalbatzak esku-hartze polizial neurrigabea salatu eta Xuhar eta bere familia egoera tamalgarri horretara bultzatu duen jokabide polizial desproporzionatua salatzen du.
3. Amasa-Villabonako udalbatzak biolentzia polizial oro salatzen du.
4. Amasa-Villabonako udalbatzak otsailaren 12 goizaldean Tolosako Soldadu kalean, Ertzaintzaren esku-hartze desproporzionatuan parte hartu zuten exekutazeileei eta foam jaurtigailuekin kargatzea agindu zuen ertzainburuari dagozkien ardurei aurre egitea eskatzen die.
5. Amasa-Villabonako udalbatzak Ertzaintzaren arduradun den eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburu den Josu Erkoreka jaunari, dagozkion ardurei aurre egin eta kaltetutako familiaren zein euskal jendartearen aurrean erantzunak eman ditzala eskatzen du.

Amasa-Villabonako udalbatzak herritar taldeak aurkeztutako mozioa onartuko balu, Amasa-Villabonako udalak, aurkeztutako mozioa Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburu den Josu Erkorekari bidaltzea eskatzen dugu, Josu Erkoreka jaunaren erantzunaren zain geratuz.

Amasa-Villabonan, 2024ko otsailaren 22an.

Beñat Uribe-Ixeberria Perez